

1.-“Anaiak nik baino bi aldiz gehiago pisatzen du” dio Mirenek. Biek batera 105 kilo pisatzen badute, zenbat pisatzen du Mirenen anaiak?

2.- Gominola-pakete batean 50 gominola zeuden.Begoñak 5 jan ditu,eta beste hainbeste eman dizkio Xabierri.Zenbat gominola jan dute biek?Zenbat gominola gelditzen zaizkie?

3.- Igogailu batean honako hau dago idatzit:”Gehienezko karga:300 kg Zure aitak 78kg pisatzen badu,zure amak 59kg, zure aitonak 85kg eta zure amonak 77kg. Ahal izango zenuke zu ere igogailuan sartu?

4.- Idoiak 47 kromo zituen. Bere bi lagunekin jokatu zuen eta lehen jokaldian 19 kromo galdu zituen. Bigarren jokaldiaren bukaeran 8 kromo zituen.

Zer gertatu zitzaion bigarren jokaldian? Hasierako kromo kopurua izateko zenbat kromo irabazi beharko zituen?

5.- Liburu-saltzaileak, liburu bat 22 eurotan, hiztegi bat 46 eurotan eta karpeta bat 15 eurotan saldu zizkizun. Handik 5 egunetara, merkealdiak jarri zituzten eta dena prezio erdian jarri zuten. Zenbat diru aurrez zenezakeen merkealdietan erosiz gero?

6.-Idoiak, lasterka, zazpi metro egiten baditu bi segundotan. Zenbat metro egingo ditu bi minututan, beti abiadura horretan badoa?

7.- Astero nire aitak 138 zentimo ematen dizkit eta diru horrekin 6 kromo eros ditzaket.

Zenbat zentimo balio du kromo bakoitzak?

8.-A.V.E. trenaren abiadura 300 kilometro orduko (300km/h) da. Zenbat minutu beharko ditu 50km egiteko?

9.- Film bat ikusi dut telebistan.21:20–etan hasi da. Filmean iragarkiak tartekatu dituzte 15 minutuz. Filmaren iraupena 1h 35 min bada, zer ordutan amaitu da filma?

10.- Xabierrek azaroan egin duen eguraldia behatu eta oharrak hartu ditu.

eg = eguzkitsua

l = lainotsua

eu = euritsua

n = nahasia

h = haizetsua

Al	Ar	Az	Og	Or	L	I
	1eg	2h	3 h	4 h	5l	6eu
7n	8 n	9 eg	10 eg	11 eg	12l	13l
14 eg	15 h	16 eu	17 n	18 eg	19 eg	20 h
21 eu	22 h	23 eu	24 n	25l	26 eu	27 eg
28 eg	29 eu	30 n				

- Zein aste izan da eguzkitsuena?
- Asteko zein aste izan da euritsuena?
- Ondorengo taula bete eta maiztasun-taula lortuko duzu.

Azaroa

Eguraldia	Kontaketa	Maiztasuna

10.- Azaltzen den zatiketa erabiliz buruketa bat asmatu.

$$75.000 : 3 =$$